

PETTI

Bere benetako izena Juan Luis Pérez Mitxelena da, baina Petti deitzen diote. 1973ko urriaren 24an Beran sortu zen. Gaur egun 47 urte baditu.

Musikarekin lehenengo kontaktua Noise Hole taldearekin izan zuen, hamasei urterekin. Geroago, bide esperimentalago bati ekin zion Zup taldearekin batera, baina 1997ra arte ez zen bakarka aritzera ausartu.

Lan guztietan hainbat lagun izan ditu alboan; gehienak, Berako musikariak.

“Amets bat” izan zen bere lehendabiziko diska Soraluzeko Gaztelupeko Hotsak disketxearekin.

Bi urte geroago, “Arrazoiak” (Gaztelupeko Hotsak, 2001) kaleratu zuen. “Etxeko uzta” hirugarren lana izen bereko taldearekin grabatu zuen: Iñigo Telletxea, Joseba Irazoki eta Aitor Garziarek “*Maikel*”.

Hauek bere disko batzuk dira: Bonberenean Zuzenean, Hotzikarak, Xabi ta Petti eta Awañak.

Hauek bere kantu ospetsuak dira: Nahasketa, Zaldi emozionalak, Errurik Gabeko Habia eta Hotzikarak.

Kanta:

Errurik Gabeko Habia

https://www.youtube.com/watch?v=t5fbWpxEi_w

Letra:

Erramu koroen zain
ez gara inoiz egon,
baina ez esan guri
zer den txar eta zer on.

Estatuak eskale-
entzat bakarrizketa.
Hezur eta haragi-
-zkoa da gure festa.

Ondo hondoratua,
txarto ohoratua.
Ahazturak badaki
zein den gure hautua.

Gaua putzua bada,
ezin naiteke alda.
Gaua samurra bada,
samurra nire malda...

Aire garbi apurra,
zigarroaren kea,
atxiki eta arnastu,
aski eta pakea.

Egunaren nekeak
kendu arren barrea,
imintzio samurra
bedi gure larrea.

Eginaren ordaina,
sobera eske al da?
Norberari berea,
leun dezagun malda.

Hitz samurrez biluzi
egun ilunen kraka.
Erantzi eta erantzi:
gauak arrazoi dauka!

Erantzi hitzak eta
erantzi atzaparrak,
jantzi denak ahantzi
“erantzi” hitza jantzi.

Ispilua zu zaitut
gardena eta zintzo:
benetako islada
zure begien mintzo.

Gaua putzua bada,
ezin naiteke alda.
Gaua samurra bada,
samurra nire malda...

Egileak: Aimar Lizasoain eta Naroa Zabaleta